

BELDURRARI HORTZAK ERAKUTSI, ENFRENTANDONOS AL MIEDO.

Kaixo steilaskide:

Aurten ere **steilas** sindikatuak azaroaren 25ean “Emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna” dela eta ikasleekin lantzeko proposamen berriarekin zuengana jotzen dugu.

Oraingoan beldurrari buruz hausnartu nahi dugu, batez ere beldurra abisu xume bat izatetik gure bizitzako protagonista izatera pasatzen denean, gure osasuna fisiko zein psikologikoki seriooki kaltetuta atera baitaiteke.

Ez da beldurrari buruz hitz egiten dugun lehenengo aldia, oraingo honetan azaleratu nahi dugu emakume askok pairatzen duten beldurraren atzean zer dagoen, askotan atzean dagoena ez baita egoera pertsonal bat baizik eta aldatzen ez den egoera sozial bat, edozein adinetako emakumeei askatasunez garatzeko eragozten dien errealitate bat, estrukturazko indarkeria matxista hain zuzen ere.

Unitate didaktiko honekin, **“Beldurrari hartzak erakutsi”**, bi helburu lortu nahi ditugu. Bata, ikasleek indarkeri mota desberdinei buruz hausnartu dezaten, indarkeria orokorrean eta emakumeen kontrako bereziki. Eta bestea indarkeri horiek sortzen duten beldurrak eguneroko bizitzan duen eraginaz jabetzea. Eta berriz ere azpimarratu nahi dugu, indarkeria agerian uzteko eta haren aurkako borrokan baliabideak garatzeko hezkidetzak duen garrantzia.

Hezkidetzaren gauzatzea berrantolatzeke beharra dugu, edozein indarkeria mota ekiditeko. Pertsona guztiak haien eta besteen buruak errespetatzeko diferentziak onartuz eta berdintasun erreala jorratuz.

Aurten ere Unitate didaktikoa formatu digitalean soilik bidaltzen dizuegu, inprimatu eta ikastetxean egongo den Hezkidetzak karpeta sartzeko animatzen zaituztegu. Karpeta ikastetxean egongo ez balitz egoitzekin jar zaitez kontaktuan beste bat eskuratzeko.

Gure web orrian ere aurkituko duzu.

Beste aldetik, ikastetxean hitzaldi bat antolatuta nahiko bazenute ere jar zaitez gurekin kontaktuan.

Bide batez, aprobetxatu nahi dugu egun horretarako antolaturik dauden hainbat ekitaldien berri emateko eta horietan parte hartzen ere animatu nahi zaitu

Koordinadora feministek antolatutako manifestazioak:

Bilbon: 19:30etan Arriaga enparantzan

Donostian: 19:00etan Boulevarden

Gasteizen: 19:30etan Andra Mari Zuriaren enparantzan

Iruinean: 20:00etan Gaztelu enparantzan

**INOLAKO INDARKERIAK GABEKO BIZIMODURAKO
HEZI BEHAR DUGU!**

